



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

Expte.: 09-4001

## EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

2010

### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua.

Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz, Udalak honako ordenantza honen arabera eskatuko du Ekonomi Jardueren gaineko Zerga. Ordenantza honen ataletariko batean, eranskinean hain zuzen, establezimenduek Amorebietako udalerrian duten kokaera fisikoaren haztapena ageri da, eta bai kaleen zerrenda ere, kategoriaren arabera ordenatuta.

#### 2. artikulua.

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

### II. ZERGA EGITATEA

#### 3. artikulua.

1. Zerga egitatea udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea da, lokal jakin batean egin zein ez, eta Zergaren tarifetan zehaztuta egon zein ez.

2. Zerga honen ondoreetarako, enpresa jardueratzat joko dira abeltzaintzako jarduerak, lokabeak direnean; baita meatzaritzakoak, industriakoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzakoak ere. Beraz, ez dira multzo horretan sartzen nekazaritzako jarduerak, inoren menpeko abeltzaintza jarduerak, basogintzakoak eta arrantzakoak, eta horietatik bakar bat ere ez da zerga egitatea.

3. Aurreko zenbakian ezarri denaren ondoreetarako, abeltzaintza lokabetzat joko da ondoko kasuetako batean dauden abelburu multzoen ustiapena:

- Jabeak ez nekazaritzarako ez basogintzarako erabiltzen ez dituen lurretan gehienbat bazkatzen direnak.
- Landalurreko finketatik kanpoko kortan daudenak.
- Azienda transhumantea edo transterminantea.
- Haztegian bertan ekoitzi ez diren pentsuez elikatzen den azienda.

#### 4. artikulua.

1. Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jardueratzat joko da hura egiten duenak bere kabuz antolatu behar dituztenean ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak, edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.

2. Zergapeko jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

#### 5. artikulua.

Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko, zuzenbidean onar daitekeen edozein modu erabiliko da eta, bereziki, Merkataritzako Kodearen 3. artikuluan ezarri diren bideak.

#### 6. artikulua.

Jarduera hauek ez daude zergapean:

1. Enpresen aktibo finkoan sartuta dauden ondasunen besterentzea, beti ere ondasun horiek ibilgetu moduan era egokian inbentariatuta egon direnean eskualdaketaren aurretik, urte bi baino



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

lehenagotik; halaber, ez da zergapekoa izango saltzaileak erabiltzeko izan diren ondasun pribatuen salmenta, baldin eta goian adierazi den epean erabili baditu.

2. Nork bere lanaren edo lanbide zerbitzuen ordainetan jasotzen dituen ekoizkinen salmenta.
3. Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren gaien erakusketa. Bezeroen oparirako diren gaien erakusketa, ostera, zergapean dago.
4. Txikizkako salmenta denean, ekintza bakarra edo eragiketa soltea egitea.

### **III. SALBUESPENAK**

#### **7. artikulua.**

1. Zerga ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta toki erakundeak, eta haien erakunde autonomo administratiboak.
- b) Nazioarteko itun edo hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu behar zaien subjektu pasiboak.
- c) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturiko mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

d) Ikerketa-erakunde publikoak eta maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, toki erakundearen edo ongintza edota herri onurako izendapena duten fundazioen funtsez baizik mantentzen ez direnak, eta irabazteko asmorik gabe hezkuntza-itunpean diharduten maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, baita ikasleei liburu eta idazgaiak eskuratu edota mantenu erdiko zein barnetegiko zerbitzuak egiten dizkietenak ere, nahiz eta salbuespen moduan establezimenduan bertan saldu irakaskuntza tailerretako ekoizkinak, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.

e) Urritu fisiko, psikiko edo zentzumenezkoen elkarte edo fundazioak, irabazteko xederik ez dutenean, burutzen duten jarduera pedagogikoa, zientifikoa, laguntzako eta enpleguaren alorreko denean eta minusbaliatuen irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babesa eskuratzeko direnean, nahiz eta helburu horietarako dituzten lantegietan ekoizten diren ekoizkinak saldu, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.

f) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

g) Beren jarduerari zerga hau garatzen den lehen bi zergaldietan ekiten dioten subjektu pasiboak.

Horretarako, honako kasu hauetan jarduera bat ez da hasitzat joko:

1. Lehen beste titulartasun batekin egin bada; eta hala gertatzen dela ulertuko da, besteak beste, jarduera-arloak fusionatu, bereizi edo gehitzen direnean.
2. Subjektu pasiboa Merkataritza Kodeko 42. artikuluaaren araberrako sozietate multzo baten parte bada, baina jarduera hori taldeko beste enpresetako inork lehenago garatutako jarduera bat denean izan ezik.
3. Jarduera horretan, partaidetzaren %25 baino gehiago jarduera hori aurretik garatu duten enpresei baldin badagokie.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa betetzeko, jarduera bera garatzen dela ulertuko da, zergaren tarifetan jarduera hori talde beraren barruan sailkatuta dagoenean.

h) 2.000.000 euro baino gutxiagoko eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboak. Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatiko zergadunei dagokienez, salbuespenak establezimendu iraunkorraren bidez aritzen direnak bakarrik ukituko ditu, betiere 2.000.000 euro baino gutxiagoko eragiketa-bolumena badute. Edozelan ere, salbuespen hau aplikatzeko baldintza izango da subjektu pasiboak letra honetan aurreikusitako eragiketen bolumenaren eskakizuna



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka 100eko 25 baino gehiagotan parte hartuta ez egotea, arrisku-kapitaleko fondoak edo sozietateak edo Sozietateen gaineko Zergaren ekainaren 26ko 371996 Foru Arauaren 59. eta 60. artikuluek aipatutako enpresak sustatzeko sozietateak, hurrenez hurren, badira izan ezik, partaidetza azkeneko hauen xede soziala betetzearen ondorioz gertatu bada. Letra honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzearen ondorioetarako, hurrengo arau hauek kontuan hartuko dira:

1gn. Eragiketen bolumena erabakiko da Sozietateen gaineko Zergaren ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 2. artikulua 7. atalean aurreikusitakoarekin bat etorritz.

2gn. Eragiketen bolumena, Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboan edo Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatiko zergadunen kasuan, zerga hauengatik aitortpenak aurkezteko epearen zergaldia zerga honen sortzapenaren aurretiko urtean bukatu denarena izango da. Bizkaiko Lurralde Historikoen martxoaren 10eko Zergei buruzko 272005 Foru Arau Orokorren 34. artikulua aipatzen dituen sozietate zibil eta erakundeei dagokienez, berriz, eragiketen bolumena zerga honen sortzapenaren aurretiko azkenaurteko urteari dagokiona izango da. Zergaldiak urte naturala baino txikiagoko iraupena izan badu, eragiketen bolumena urtera handituko da.

3gn. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko honek egindako jarduera ekonomiko guztiak kontuan hartuko dira. Erakundea sozietateen talde bateko kide denean, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluaekin bat etorritz, aurretik adierazitako magnitude horiek aipatutako taldearen kide diren erakunde guztiei erreferentzia egingo diete.

4gn. Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatiko zergadunei dagokienez, espainiar lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakizkiokeen eragiketen bolumena kontuan hartuko da.

2. Aurreko idatz-zatiko d) eta e) letretan arautu diren onurak eskatu egin beharko dira eta, bidezkoa denean, alderdiak eskatu ondoren emango dira.

3. Hobaria izango da ondorengo kasu hauetan:

JEZaren kuota osoaren % 5eko hobaria ingurumena kudeatzeko sistemen inguruko ziurtagiriak dituztenentzat, baldin eta EAEko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aipatzen diren jarduera sailkatuetan badihardute eta Europako EMAS izeneko arautegiak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

#### **IV. SUBJEKTU PASIBOAK**

##### **8. artikulua.**

Zerga honen subjektu pasiboak dira pertsona fisikoak eta juridikoak eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatutako erakundeak, baldin eta zerga egitatea sortzen duten jardueretariko bat udalerrian egiten badute.

7. artikuluko lehen idatz-zatiko a), b), c) eta f) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu Zergaren matrikularen alta-aitortpena.

#### **V. ZERGA KUOTA**

##### **9. artikulua.**

Zerga kuota izango da Zergaren tarifak foru arau honetan eta berau osatzen eta garatzen duten xedapenetan adierazitakoaren arabera eta foru arauetan eta ordenantza fiskaletan zein honako ordenantza honetan ezarritako koefizienteak, indizea eta hobariak aplikatuz sortzen den emaitza. 10. artikulua.

Zergaren tarifak apirilaren 30eko 1/1991 Araugintzako Foru Dekretuan ezarritakoak izango dira.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

**11. artikulua.**

Tarifa horien gain aplikagarriak izango dira, hurrenez hurren, eragiketa bolumenaren arabera haztapan koefizientea, koefiziente bakarra eta establezimenduak udal mugartean duen kokaera fisikoaren haztapan indizea.

1.- Eragiketa bolumenaren arabera haztapan koefizientea:

Zergaren tarifetan ezarritako udal, probintzi eta estatuko kuotetan aplikatu ahal izango da koefiziente hori.

Aurreko paragrafoetan aipatutako haztapan koefizientea kalkulatzeko, honako taula hau erabiliko da:

Eragiketen bolumena (€)	Koefizientea
2.000.000,00 eta 6.000.000,00 bitartekoa.....	1,20
6.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartekoa.....	1,22
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 bitartekoa.....	1,24
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartekoa.....	1,27
100.000.000,00tik gorakoa.....	1,30
Eragiketa-bolumenik ez.....	1,25

Idatz-zati honetan aipatutako koefizientea aplikatzeko, subjektu pasiboaren eragiketen bolumena berak egindako ekonomi jardura guztiena izango da; foru arau honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

2. Koefiziente bakarra:

Aurreko idatz-zatian araupetutako koefizientea aplikatuz gehitutako kuotak aldatuko dira, udal mugarteko jardura guztiei koefiziente bakarra aplikatuz. Aipatutako Koefizientea 2,20an ezartzen da.

3. Kokapen indizea:

Aurreko artikuluan araututako jardura koefizientea aplikatzeagatik gehitutako kuotetan, udalerrian jardura dagoeneko establezimenduaren egoera fisikoa ponderatuko duen indize bat ezartzen da, Eranskinaren arabera kaleak duen kategoria fiskala kontutan hartuz eta ondoko indize eskala aplikatuz:

Kale eta bide publikoen kategoria fiskala	Aplika daitekeen indizea
1. kategoria	1,30
2. kategoria	1,20
3. kategoria	1,10
4. kategoria	1

**VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA**

**12. artikulua.**

1. Zergaldia egutegiko urtea bera izango da, salbu eta alta aitortpenak direnean, horrelakoetan jardura hasten den egunetik egutegiko urtea amaitu artekoa izango baita, artikulua honetako 3 idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe.

2. Zergaldiko lehen egunean sortuko da zerga, eta kuotak ezin izango dira txikitu, salbu eta, alta aitortpenen kasuetan, jardueraren hasierako eguna egutegiko urtearen lehen eguna ez denean, horrelakoetan kuotak urtea amaitzeko egutegiko urtetik falta diren hiruhilekoen, jardura hasi den hiruhilekoa barne, kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatu dira eta.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

3. Baja aitortzen, kuotak bajaren egunera arte, zergapeko jarduera amaitu den hiruhilekoa barne, igarotako hiruhilekoen kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatuko dira, salbu eta jardueraren amaiera alta aurkeztu den ekitaldian gertatzen denean, horrelakoetan bajak hurrengo urteko lehen egunetik izango baititu ondorioak.

4. Ikuskizunak direnean, kuotak jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortpenak arau bidez ezarritako eran aurkeztu beharko dira.

## **VII. KUDEAKETA**

### **13. artikulua.**

1. Zergaren kudeaketa matrikula egiten denean hasiko da. Matrikula urtero egingo da eta zentsuen bidez osatuko da; zentsu horietan jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak eta zerga zorrak azalduko dira, eta behar denean foru errekarua ere bai. Matrikula jendearen eskura egongo da Udaletxean.

2. Subjektu pasiboek alta aitortpenak aurkeztu beharko dituzte, arau bidez ezartzen den epean; aitortpen horietan aurreko idatz-zatian adierazitakoaren arabera matrikulan sartu beharreko elementu guztiak adierazi beharko dituzte. Jarraian, eskumena duen administrazioak likidazioa egingo du; likidazioa subjektu pasiboari jakinaraziko zaio eta, hark, behar den sarrera egin beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordaintetan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epeetan eta zehazten den bezala.

Hain zuzen ere, foru arau honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena ezin aplikatu duten subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote euren eragiketen bolumena. Orobat, eragiketen bolumenean aldaketaren bat gertatuz gero, subjektu pasiboek horren berri eman behar dute, baldin eta aldaketak ordenantza honetako 7. artikuluko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespenaren aplikazioan eragina badu, edo eragiketa bolumenaren araberrako haztapen koefizientearen aplikaziorako kontuan hartu beharreko tartean zerbait aldarazten badu (aplikatu ahal zaie, aukeran, udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboek, eta derrigorrez aplikatu behar zaie probintziako eta Estatuko kuota ordaintzen dutenei).

3. Zerga ikuskalaritzaren edo alten zein berriemateen formalizazioaren emaitzako zentsuetan datuak sartzea edo haietako datuak kentzea edo aldatzea administrazio egintzat joko dira eta zentsuaren aldarazpena ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa orok, zentsuetan dauden datuak ukitzen baditu, nahitaez, aldeztu aurretik zentsu horiek modu berean aldaraztea eskatuko du.

4. Zerga hau autolikidazio araubidean eskatu ahalko da, arau bidez ezartzen den eran.

### **14. artikulua.**

1. Zerga kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko (borondatezko epealdian zein premiamendu bidez) ahalmenak Udalarenak dira.

2. Udalaren ahalmenak dira, beren beregi, matrikula jendaurratzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zerga honen alorrean zergadunari laguntza eta informazioa emateko jarduketak egitea.

3. Foru Aldundiaren egitekoak dira matrikula osatu eta artatzea, jarduera ekonomikoak kalifikatzea eta kuotak ezartzea.

Hala ere, Foru Aldundiak nahiz udalek egin ditzakete egintza horien jakinarazpenak, bai eta zerga zorrak zehazteko likidazioen jakinarazpenak ere.



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

4. Udalaren ardura da ordainagiriak egitea, baina horrek ez du ezertan eragotziko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan azaltzen diren lankidetzaren formulak erabiltzea.

Udala eta Foru Aldundia lankidetzan arituko dira zergaren matrikula osatzeko eta artatzeko; halaber, batera jardungo dute jarduera ekonomikoak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko orduan.

5. Salbuespenak emateko edo ukatzeko beti beharko da Foru Aldundiaren txosten teknikoak; horri buruz hartzen den ebazpenaren berri jakinarazi beharko zaio Foru Aldundiari.

**15. artikulua.**

Jarduerak sailkatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekurtsio eta erreklamazioak direla eta, martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 220 eta 232 bitarteko artikuluetan xedatutakoa beteko da. Bizkaiko Foru Aldundia izango da horrelako errekurtsio eta erreklamazioak ebazteko organo eskuduna. Errekurtsio edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

**16. artikulua.**

1. Foru Aldundiak egingo du matrikula eta Udalari igorriko dio.

2. Behin matrikula jaso eta gero, Udalak jendaurrean azalduko du hamabost egunez, ukitutako zergadunek aztertu ahal dezaten eta bidezko deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

**17. artikulua.**

1. Jendurreko azalpen epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzaren ziurtagiria Foru Aldundiari igorriko zaio onetsi dezan.

2. Behin onetsita, udalek ordainagiriak egingo dituzte (lankidetzarako arauen kalterik gabe).

**VIII. XEDAPEN IRAGANKORRA**

Lehenengoa. Jarduera ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboak dagokienean, hauei buruz esan behar da 7/2003 Foru Araua indarrean sartzean, Arauak xedatzen duenaren arabera, zerga ordaintzetik salbuetsita ez dagoenez, hobariak aplikatzen ibili direla jarduera hasieragatik kuotan. Hobariak, apirilaren 30eko 1/1991 arautzen duen Foru Dekretuak onetsitako tarifen bigarren atalari dagokion lehenengo ohar komunean arautu dituzte lehenago. Dekretu honek Jarduera ekonomikoaren gaineko Zergaren tarifak eta jarraibideak onesten ditu eta hauek aipatutako hobaria aplikatzen jarraituko dute, hobaria aplikatzeko dagokion denboraldia amaitu arte, aipatutako Arau Orokorrek aurreikusitako duen moduan.

Bigarrena. 7/2003 Foru Araua indarrean sartu baino lehen hasitako prozedurei ez zaie berau aplikatuko eta aurreko arautegiak aginduko du.

**IX. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, 2003ko urriaren 15ean egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2003eko abenduaren 12ean. Ondoren, behin-betiko aldatu zen, lehenengoz 2004eko abenduaren 07an, bigarrenaz 2005eko urriaren 14an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2005eko abenduaren 23an, hirugarrenez 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21an., eta laugarrenez, 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2007ko abenduaren 14an. Bostgarrenez, 2008ko urriaren 17an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2008ko abenduaren 04an. Seigarrenez, 2009ko urriaren 16an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2009ko abenduaren 04an.

Aldaketa hau 2010eko otsailaren 25ean egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2010eko apirilaren 21ean. 2010eko urtarrilaren 01ean jarriko da



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean. (BAO 84.zk. 2010, maiatzak 6. Osteguna).



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**ERANSKINA**

**KALE, AUZO, ENP..IZENAK - KATEGORIA**

ABASOLO APEZPIKU kalea:	1.
AITA ROMAN URTIAGA kalea:	2.
AITA SANTI ONAINDIA kalea 1etik 7ra:	1.
AITA SANTI ONAINDIA kalearen gainontzekoa:	2.
ALAKAO auzoa:	4.
ALDANA auzoa:	4.
ALTAMIRA kalea:	3.
ALTZIBARRA auzoa:	4.
ANBOTO kalea 1 etik 9 ra:	1.
ANDAPARA kalea:	2.
ANDRAMARI kalea:	1.
ANDRANDI auzoa:	3.
ANTON MENDIKOA auzoa:	4.
ARAMOTZ kalea :	2.
ARAZOTZA auzoa:	4.
ARETXALDE BEKOA kalea:	2.
ARETXALDE GOIKOA kalea:	2
ARKOTXA auzoa:	4.
ARRAIBI auzoa:	3.
ARREGI auzoa:	4.
ARRIETA JAIKO kalea:	2.
ARRINDA auzoa:	4.
ASTEPE auzoa:	4.
AUTZAGANE auzoa:	4.
AZOKA kalea:	1.
BEDIAGA auzoa:	4.
BELATXIKIETA auzoa:	4.
BELATXIKIETA kalea:	2.
BELAUSTEGI auzoa:	4.
BERNA auzoa:	4.
BERNABEITIA auzoa:	4.
BERNAGOITIA auzoa:	4.
BETARRAGANE kalea:	3.
BIDEAUR auzoa:	3.
BIDEZAHAR auzoa:	2.
BIZKARGI kalea:	1.
BOROA auzoa:	4.
DERANDEIN auzoa:	4.
DUDAGOITI auzoa:	4.
DUDEA auzoa:	4.
ELIZALDE kalea:	2.
ENARTZE auzoa:	4.
EPALTZA auzoa:	4.
ERGOIEN auzoa:	4.
ERKOLES auzoa:	4.
EUBA auzoa:	3.
EUSKAL-HERRIA plaza:	1.
GABRIEL ARESTI plaza, 1etik 6ra:	2.
GANE auzoa:	3.
GARAITONDO auzoa:	4.
GERNIKA plaza:	1.
GISETZA auzoa:	4.
GREGORIO MENDIBIL kalea:	1.
GUDARI kalea, 1etik 15era:	1.
GUDARI kalearen gainontzekoa:	2.
GUMUZIO auzoa:	4.
HARRIAGANE auzoa:	4.
HARRISON kalea:	1.
HERRIKO plaza:	1.
IBAIZABAL kalea:	1.
IBARGUREN auzoa:	4.
IBARRA auzoa:	4.
IXERANGO kalea:	2.
IXER-BEKOA kalea:	2.
IZER kalea:	2.
JAUREGIBARRIA kalea 10 zk.arte:	1.

**ANEXO**

**CALLE, BARRIO, PLAZA - CATEGORÍA**

C/ ABASOLO APEZPIKU:	1ª
C/ AITA ROMAN URTIAGA :	2ª
C/ AITA SANTI ONAINDIA Nº 1 al 7:	1ª
C/ AITA SANTI ONAINDIA Resto:	2ª
Bº ALAKAO:	4ª
Bº ALDANA:	4ª
C/ ALTAMIRA:	3ª
Bº ALTZIBARRA:	4ª
C/ ANBOTO del Nº1 al 9:	1ª
C/ ANDAPARA:	2ª
ANDRAMARI kalea:	1ª
Bº ANDRANDI:	3ª
Bº ANTON MENDIKOA:	4ª
C/ ARAMOTZ :	2ª
Bº ARAZOTZA:	4ª
C/ ARETXALDE BEKOA:	2ª
C/ ARETXALDE GOIKOA:	2ª
Bº ARKOTXA:	4ª
C/ ARRAIBI:	3ª
Bº ARREGI:	4ª
C/ ARRIETA JAIKO:	2ª
Bº ARRINDA:	4ª
Bº ASTEPE:	4ª
Bº AUTZAGANE:	4ª
C/ AZOKA:	1ª
Bº BEDIAGA:	4ª
Bº BELATXIKIETA:	4ª
C/ BELATXIKIETA:	2ª
Bº BELAUSTEGI:	4ª
Bº BERNA:	4ª
Bº BERNABEITIA:	4ª
Bº BERNAGOITIA:	4ª
C/ BETARRAGANE:	3ª
Bº BIDEAUR:	3ª
Bº BIDEZAHAR:	2ª
C/ BIZKARGI:	1ª
Bº BOROA:	4ª
Bº DERANDEIN:	4ª
Bº DUDAGOITI:	4ª
Bº DUDEA:	4ª
C/ ELIZALDE:	2ª
Bº ENARTZE:	4ª
Bº EPALTZA:	4ª
Bº ERGOIEN:	4ª
Bº ERKOLES:	4ª
Bº EUBA:	3ª
PZ. EUSKAL HERRIA:	1ª
PZ. GABRIEL ARESTI Nº 1 al 6:	2ª
Bº GANE:	3ª
Bº GARAITONDO:	4ª
PZ. GERNIKA:	1ª
Bº GISETZA:	4ª
C/ GREGORIO MENDIBIL:	1ª
C/ GUDARI del Nº 1 al 15:	1ª
C/ GUDARI Resto:	2ª
Bº GUMUZIO:	4ª
Bº HARRIAGANE:	4ª
C/ HARRISON:	1ª
PL/ HERRIKO:	1ª
C/ IBAIZABAL:	1ª
Bº IBARGUREN:	4ª
Bº IBARRA:	4ª
C/ IXERANGO:	2ª
C/ IXER-BEKOA:	2ª
C/ IZER:	2ª
C/ JAUREGIBARRIA hasta Nº 10:	1ª



## Amorebieta-Etxanoko Udala Bizkaia

JAUREGIBARRIA kalea 11 zk. :	2.	C/ JAUREGIBARRIA del N° 11:	2ª
JAUREGIZAHAR auzoa:	3.	B° JAUREGIZAHAR:	3ª
JUAN ALZAGA kalea:	1.	C/ JUAN ALZAGA:	1ª
JUAN XXIII kalea:	2.	C/ JUAN XXIII:	2ª
KALBARIO plaza:	1.	PZ CALVARIO:	1ª
KARMEN kalea Zenabaki bikoitiak 16.ra arte.:	1.	C/ KARMEN números pares hasta 16	1ª
KARMEN kalea: Zenbaki bikoitiak 18.tik 24.era arte.	2.	C/ KARMEN: números pares desde el 18 hasta el 24.:	2ª
KARMEN kalea Zenbaki bakoitiak 25.ra arte.:	1.	C/ KARMEN: números impares hasta 25	1ª
KARMEN kalea Zenbaki bakoitiak 27tik 31era arte	2.	C/ KARMEN: números impares desde el 27 hasta el 31.:	2ª
KARMEN kalearen gainontzekoa.:	3.	C/ KARMEN: resto.:	3ª
KATIA auzoa:	4.	B° KATIA:	4ª
KONBENIO kalea:	1.	C/ CONVENIO:	1ª
LA TEJERA auzoa:	3.	B° LA TEJERA:	3ª
LAMINOR kalea:	3.	CL. LAMINOR:	3ª
LANDATXU kalea:	2.	C/ LANDATXU:	2ª
LANDETA kalea:	2.	C/ LANDETA:	2ª
LARREA auzoa:	3.	B° LARREA:	3ª
LARRABARRENA auzoa:	2.	B° LARRABARRENA:	2ª
LARRABIDE kalea:	1.	C/ LARRABIDE:	1ª
LARRAGOIKOA auzoa:	4.	B° LARRAGOIKOA:	4ª
LEGARREBI auzoa:	3.	C/ LEGARREBI:	3ª
LEGINETXE auzoa:	4.	B° LEGINETXE:	4ª
LUIS URRENGOETXEA kalea 20 zk.raino:	1.	C/ LUIS URRENGOETXEA hasta N° 20:	1ª
LUIS URRENGOETXEA kalearen gainontzekoa:	2.	C/ LUIS URRENGOETXEA Resto:	2ª
MARABI auzoa:	4.	B° MARABI:	4ª
MARKES ARESTI auzoa:	4.	B° MARKES ARESTI:	4ª
MATZORRI auzoa:	4.	B° MATZORRI:	4ª
MEKOLA auzoa:	4.	B° MEKOLA:	4ª
MONTORRA auzoa:	4.	B° MONTORRA:	4ª
MUNIKETA auzoa:	4.	B° MUNIKETA:	4ª
NAFARROA kalea 1 etik 13 ra:	1.	C/ NAFARROA del N° 1 al 13:	1ª
NEMESIO BIKANDI kalea:	1.	C/ NEMESIO BIKANDI:	1ª
OGENA auzoa:	4.	B° OGENA:	4ª
OGENABEKOA kalea:	2.	C/ OGENABEKOA:	2ª
OGENBARRENA kalea:	2.	C/ OGENBARRENA:	2ª
OGENBIDE kalea:	2.	C/ OGENBIDE:	2ª
OROMIÑO auzoa:	4.	B° OROMINO:	4ª
PARTICULAR DE SAN PEDRO kalea.	2.	C/ PARTICULAR DE SAN PEDRO:	2ª
SABINO ARANA kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 13 zk.ak: 1.	1.	C/ SABINO ARANA N° 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 13:	1ª
SABINO ARANA kalearen gainontzek.:	2.	C/ SABINO ARANA Resto:	2ª
SAN ANTONIO ELGEZABAL auzoa:	4.	B° SAN ANTONIO ELGUEZABAL:	4ª
SAN BARTOLOME auzoa:	4.	B° SAN BARTOLOME:	4ª
SANISIDRO kalea:	2.	C/ SAN ISIDRO:	2ª
SAN JUAN kalea, 1etik 9ra:	1.	C/ SAN JUAN del N° 1 al 9:	1ª
SAN JUAN kalearen gainontzekoa:	2.	C/ SAN JUAN Resto:	2ª
SAN JUAN DE OFRENDO auzoa:	4.	B° SAN JUAN DE OFRENDO:	4ª
SAN MIGUEL kalea, 1etik 22ra:	1.	C/ SAN MIGUEL N° 1 al 22:	1ª
SAN MIGUEL kalearen gainontzekoa:	2.	C/ SAN MIGUEL Resto:	2ª
SAN MIGUEL DE DUDEA auzoa:	4.	B° SAN MIGUEL DE DUDEA:	4ª
SAN PEDRO kalea, 2tik 42ra:	1.	C/ SAN PEDRO N° 2 al 42:	1ª
C/ SAN PEDRO N° 1 hasta rotonda Valet:	1.	C/ SAN PEDRO N° 1 hasta rotonda Valet:	1ª
SAN PEDRO kalearen gainontzekoa:	2.	C/ SAN PEDRO Resto:	2ª
SAN PEDRO DE LARRINETA auzoa:	4.	B° SAN PEDRO DE LARRINETA:	4ª
SANTA ANA auzoa:	2.	B° SANTA ANA:	2ª
SANTA LUZIA LEGINETXE auzoa:	4.	B° SANTA LUZIA LEGINETXE:	4ª
SARATZU auzoa:	4.	B° SARATZU:	4ª
TANTORTA auzoa:	3.	B° TANTORTA:	3ª
TORREBURU auzoa:	4.	B° TORREBURU:	4ª
TXIKERRA kalea:	1.	C/ TXIKERRA:	1ª
TXIKI-OTAEGI kalea:	1.	C/ TXIKI-OTAEGI:	1ª
TXOSNA auzoa:	4.	B° TXOSNA:	4ª
UGARTE auzoa:	4.	B° UGARTE:	4ª
UGARTE BIDE:	2.	C/UGARTE BIDE:	2ª
UNAMUNO kalea:	2.	C/ UNAMUNO:	2ª
URBANO LARRUZEA kalea:	1.	C/ URBANO LARRUZEA:	1ª
URRITXE auzoa:	3.	B° URRITXE :	3ª
URUMIN auzoa :	4.	B° URUMIN :	4ª
ZELAIETA auzoa:	4.	B° ZELAIETA:	4ª
ZELAIETA parkea:	1.	PE. ZELAIETA:	1ª
ZEZILIA GALLARTZAGOITIA kalea:	1.	C/ ZEZILIA GALLARZAGOITIA:	1ª
ZIRILO ARZUBIAGA kalea:	1.	C/ ZIRILO ARZUBIAGA:	1ª



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

ZUBIKURTZE auzoa: 2.  
ZUBIPUNTE Kalea: 2.  
ZUBIZABALA kalea: 3.

Bº ZUBIKURTZE: 2ª  
C/ ZUBIPUNTE 2ª  
C/ ZUBIZABALA: 3ª

INDUSTRIALDE GUZTIAK 3. KATEGORIAKOTZAT JOKO DIRA.

TODOS LOS SECTORES INDUSTRIALES SE INCLUIRÁN EN LA CATEGORÍA 3ª.